**7.Miguel Servet´en jaiotetxea.** Miguel de Villanueva, XVIgarren mendeko mediku eta teologo tuterarra hau, bai Inkisizio katolikoak nola Calvinok, herejetzat harturik, 1553. urtean erre egin zuten: batak bere irudia eta besteak bere gorputza.


Huarteko Markesen Jauregia
Argazkia: Xabi Urriza


San Nicolás | Argazkia: Xabi Urriza

**8. San Nicolás.** Antso VII. Azkarra, Orreagara eraman zuten arte, lau urtez bertan lurperaturik egon zen. Ikusgarria da oso haren tinpano bakarra: Aita eta Semea elkarrekin dauden mandorla benetan bitxia da. Atea "Mediavilla" errekaren gainean dago, IX. mendeko harresiari paso ematen zion zubia estaliz.

**C**



**Ate gainean bi lehoi daude... arra eta emea ote dira? Pistarik nahi al duzue?** Hargileak lehoi emeari kumeak elikatzeko ugatzak nabarian utzi zizkion.
Ohartu al zarete? Emakumea eta gizona ere irudikatuta daude.

***Zein hizkitatik hasten da tinpanoaren klabean goikaldean dagoen hegaztiaren izena? Idatzi hemen***

**9. Rua kalea,** Errenazimenduan Kale Nagusia zenak merezi du bisitatxo bat: armarriak, aleroak, etxeak.... Ibañez-Luna etxe platereskoan goiko soilaruaren arkuen galeria azpimarkatzekoa da: Nafarroa eta Aragoien tradizio sendoa duena.

**10.**Fatxada errenazen,tista ederra daukan XVI. mendeko **Almirantearen Etxea**k Trafalgar gudalostean hil zen Jose Javier Ezkerra itsasgizonari dio zor izena.

**11.AvanGarde** arte modernoaren exenplu aunitz ikusi daiteke zonaldean eta areta berezia merezi du.


Almirantearen etxea
Argazkia: Mikel Ziordia


Jesusen Bihotza Yehuda Ha Levi enparantzatik ikusita.
Argazkia: Mikel Ziordia

**12.Jesusen Bihotza**ren estatua erraldoia gazteluko Dorre Nagusiaren gainean eginda dago, Santa Barbara mendixkan. Hiriko lehenengo biztanle prerromanikoen aztarnak ere bertan daude. Nafarroako Konkistan Erresumak amore eman zuen azken hiria izanik, Villalba Koronelak 1516. urtean, Cisneros Kardenalaren aginduak betez, harresiak botarazi egin zituen. 1521. urtetan tuterarrek Nafarroako Enrike Labritekoaren alde parte hartu zutela eta, Carlos V. Enperadoreak gaztelua erabat deseustatzea erabaki zuen. Hortik paisaia paregabeaz goza daiteke: Abardenak, Ebro ibaia, Mejana, Alde Zaharra eta hiri berria... eta pare-parean Monreal Dorrea, Lourdeseko Auzoan kokaturik, Kamara Iluna bisitagai duena.


A Letras a la Taza LIBRERÍA CAFETERÍA www.letrasalataza.com
B Hostal Remigio restaurante más de un siglo de verduras www.hostalremigio.com
COMPAÑÍA DE GUÍAS DE LAS BARDENAS 675 722 666 · 948 48 76 00 WWW.TURISMOBARDENAS.COM
SON RIA CALIDAD Conservas Artesanales desde 1960 CADREITA www.conservasria.com






HT Hoteles TUDELA asociación de hoteles de Tudela
- AC Ciudad de Tudela **** C
948 40 24 40
c\ Misericordia s/n · TUDELA (Na)
- Hotel Santamaría *** D
948 82 12 00
c\ San Marcial 14 · TUDELA (Na)
- Hotel Tudela Bardenas *** E
948 41 08 02
c\ Avda. de Zaragoza 56 · TUDELA (Na)
- Hotel Aire de Bardenas **** F
948 11 66 66
Carretera de Ejea s/n · TUDELA (Na)

www.hotelestudela.com


## ESTABLEZIMENDU KOLABORATZAILEAK

*JATEKO*
1 Asador-Sidrería Casa Lola
2 Restaurante Trinquete
3 Silbis Restaurante

*TXKIKIENTZAKO*
4 Dorondón

*PRODUKTU EKOLOGIKOAK*
5 Hierba Buena

*KAFETEGIA ETA GOSARIAK*
6 Pastelería Aguado

*PINTXOAK, POTEOA, TERRAZAK ETA KOPAK*
7 Nenaf
8 Bar Josema
9 Bar Isidro
10 La Catedral
11 Bar la Estrella
12 Al Andalus
13 Bar Diamante
14 Yin
15 Bar San Jaime
16 Bar La Fuente
17 Rancho Grande
18 Consenti2
19 Bar Taberna

SINBOLOAK BILATU MAPAN!


CAMPING ECOLÓGICO CERTIFICADO BARDENAS camping Tel: 948 846 191 Ctra. NA-660 PK 13.4 Villafranca (Navarra) www.campingbardenas.com
G bardenasaventure Guías especializados · Alojamientos · Paseos a Caballo WWW.BARDENASAVENTURE.COM WWW.ALOJAMIENTOSBARDENAS.COM
H Arguedas Puerta de las Bardenas www.infoarguedas.com
I SIDRERÍA BORNAX RESTAURANTE ASADOR TFNO. RESERVAS: 948 84 46 46 www.bornax.com


**19.San Adrian Markesaren Jauregia (XV-XVI):** 1808. urtean bere patio, eskailera eta alero miresgarriak Palafox eta Castaños Generalen eztabaidaren lekuko izan ziren Tuterako Gatazkaren lehenengo tiroak hasiak zirenean. Gertakizun honen ondorioz Tutera izena Pariseko Garaipen Arkuan idatzita dago.

**20. Tuterako Benjamin** bidaiari judutarrak XII. mendean, Persiaraino egindako bidaian, 190 hiri ezagutu omen zituen Txinako berriak Marko Polo baino ehun urte lehenago ekarriz. Judutegiko Plazak Judutegi Zaharraren auzoarekin mugatzen du eta Verjas eta Portal kaleetatik jarraituz gaur Katedralaren Klaustroan integratuta dagoen Sinagoga Nagusiraino eramango gaitu.

**21. Plaza zaharra:** Mezkitaren patioa izan zenaren esparruan zabaltzen da, gaurko katedraleko iparraldeko atearen aldean, non agerian dauden mezkitatik berreskuratutako modilloneak, Kordobakoen antzekoak.

**22. Udaletxea (XV):** Azkoiengo Mosen Pierres, buruzagiaren etxea izan zena da eta aldameneko etxeekin kalexkak urraturiko esparru karratua osatzen du. Bertan Tuterako alkaizeria (altxorren azoka arabiarra) ote zegoen esaten da.


San Adrian Markesaren Jauregia
Argazkia: Blanca Aldanondo


Katedralaren aurrealdeko irudia
Argazkia: Xabi Urriza


Deanaren Jauregia Verjas kalean
Argazkia: Blanca Aldanondo

**23. Santa María Katedrala**ren ate berezi eta famatuenaz astiro gozatzeko tartea har dezagun. Epaiaren Ate erromanikoa bitxia da oso, Zeruari eta, bereziki, Infernuari ematen dien tratamentu pedagogiko eta zabalagatik. Gizarte estamentu guztien lekukotasun harrigarria ageri zaigu bertan: erregeak, apezpikuak, apezak, artisauak, emakumeak eta gizonak... Nabarmen uzten du zer nolako zigorra dagokion bekatu mota bakoitzari. Bestalde zigor hoietariko batzuk textu islamikoan (eta ez kristauean) agertzea ere azpimarragarria da. Gainera Genesisa kontatzen duten kapiteletan tradizio judutarrarekin loturik dauden eszenak irudikatzen dira. Bere garaian konjunto osoa polikromaturik zegoen. Pintaturik egon zitekeen Tinpanoa egun galduta dago.

**F**



**Arpa jotzen duen astorik ikusi al duzue inoiz? Hortxe, katedralaren horman bertan, badauzakue bat!** Batzuk astoak ezjakin arroputza irudikatzen duela diote, beste batzuk, ordea, armoniaren ikurtzak daukate gure astotxoa...honek ere nola edo hala arpa jotzean, bere tokitxoa aurkitu baitu unibertsoan.

***Zenbat irudi daude Astoaren aldamenean?***

**24. Pedro de Villalon Deanaren Jauregia**k XVI. mendeko platereso moduko ate nagusia dauka. XV. mendeko etxe bat aprobetxatuz eraiki zenez Verjas kaletik lehiotxo gotiko eder eta gotiko-mudejar estiloko trazeria liraina ageri zaizkigu.

**25. Merkatu plaza,** Tuterako barazkirik onenak erosteko toki aproposa, aintzinako klaustroan kokatzen da.

**26. Albazares atea** zegoen Concarera kaletik Plaza Berrira helduko gara berriro, estalita dagoen Queiles ibaia pasatuz.

**G**



**Elkarrekin bizi den kultur multzoa...** Hiru Kulturak batu zituen hiriko Plaza Berrian zaude berriro. Izkina batean lehenengo pisuko balkoi batzuetan kristauen gurutzetik urbil, Islam eta Judaismoaren ikurrak ikus ditzakezue (ilargia eta Daviden izarra) ...Tutera anitzan zabiltzate.

***Nola deitzen da Plazaren erdian dagoen eraikitxo hori? Idatzi lehen hizkia .***